



SANTIXABELAK
2019

gehigarri berezia



INPRENTA
offset eta digitala

**DISEINU
GRAFIKOA**

**DISEINU
EDITORIALA**

liburuak
aldizkariak
ESKU-ORRIAK
katalogoak
IRUDI KORPORATIBOA
kartelak
EGUTEGIAK
papeleria
koadernoak
AGENDAK

**GORA
SAN
TIXA
BEL
AK**

antza

Zirkuitu Ibilbidea 2 · 20160 LASARTE-ORIA · Tel. 943 370 738 · info@antza.eus · www.antza.eus

KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

Bidaia bat baino zerbait gehiago.

Gora Santaixabelak!

Aizpurua

50
años
urte

www.autocares.aizpurua.es

IRATI AZKUE ZALDUA: “SANTIXABELETAKO ELEMENTU IKONIKOEKIN OSATU DUT DISEINUA”

Santixabeletako egitarauaren diseinu-lana Irati Azkue Zaldua oriotarrarena da. Herriko festen esentzia bilduta sortu duela adiezi digu. Ama usurbildarra izanik, beti egon izan da Usurbilgo herriari lotuta. NOAUA!rekin partekatu ditu sormen lanaren xehetasunak.

NOAUA! Nolatan oriotar bat Usurbilgo festetako egitaraua diseinatzen? Askotan izan zara festetan?

Irati Azkue Zaldua. Ni oriotarra naiz, baina nire ama usurbildarra da. Betidanik izan dut harremana Usurbilekin. Horrelaxe sortu zen kontua, besterik gabe. Nik diseinua ikasi dut, ez diseinu grafikoa, baina graduan zehar jorratu ditut diseinu grafikoan erabiltzen diren tresna batzuen erabilera. Iku-si nuen deialdia irekita zegoela Santixabeletarako eta aurkeztea erabaki nuen.

“Lehiaketa batean irabazten dudan lehenengo aldia da”

Zerk bultzatu zintuen txapelketan parte hartzera?

Txikitatik askotan izan naiz Santixabeletan, orduan proposamen bat egitea pentsatu nuen eta ea jendeak gustoko zuen ikustea. Probatzegatik batez ere.

Zer suposatzen du zuretzat txapelketa irabazi izanak?

Dezenteko ilusioa egin dit. Nik bidali nuenean proposamena lan polit bat egi-

teko intentzioarekin egin nuen. Orduan, irabazi nuela jakinarazi zidatenean ilusioa egin zidan.

Lehenengo aldia da parte hartzen duzuna edo gehiagotan parte hartu duzu? Eta gisa honetako beste txapelketetan?

Kartel lehiaketaren batean parte hartu izan dut, baina irabazten dudan lehenen-

go aldia da hau. Ez da betidanik egin izan dudan zerbait, behin edo behin egindakoa zerbait baizik.

Lan horiek sortzearen plazer hutsagatik egiten dituzu?

Bai, plazer hutsagatik egiten ditut. Egia da irabazteak motibazio puntu bat ematen du.



Oriotarra da baina “txikitatik askotan izan naiz Santixabeletan”.

“OILASKO BILTZAILEAK OSO USURBILDARRAK DIRA”

NOAUA! Azalduko zeniguke zertan oinarritu den zure diseinu-lana?

Irati Azkue Zaldua. Oinarri nagusia jaietako programa bera izan da.

Festetako ohiko ekintzak kontuan

izanda, eta aurtengoaren berri izanda sortu nuen. Santixabeletako elementu ikonikoekin hasita, bost buruhandi berezi horiek ez dira errepikatzen beste herrietan.

Oilasko biltzaileak ere oso usurbildarrak eta bereziak dira.

Marrazkiekin bilatu dudana horixe izan da hain justu, programa bera narraztea.

“OHORE BAT DA JAIEI HASIERA EMATEA”

Estitxu Berasategi eta Esther Arrojeria Bera Bera taldeko jokalarari usur-bildarrek emango diete hasiera aurtengo Santixabel festei. Azken urteetan emandako maila onak eta lortutako tituluek egin dituzte festen hasiera ekitaldiko arduradun. Hona NOAUA!ri esan diotena.

NOAUA! Nola hartu duzue Santixabeletako txupinazoa botako duzuenaren albiste?

Esther Arrojeria: Pozgarria da herriak gure lana jarraitzen duela ikustea eta lorpenei aitorpen bat eman nahi diola jakitea. Guretzat ohore bat da Santixabelelari hasiera ematea.



Esther Arrojeria eta Estitxu Berasategi eskubaloiz jokalariek piztuko dute jaien hasierako suziria.

SANTIXABELAK

SANTIXABELEKO MENUA

Etxeko kroketa bereziak
Ahuntz gazta eta intxaur entsalada
Onddoz beteriko krepea

AUKERAN:
Haragiak edo Arrainak
parrillan

Brownia izozkiarekin
Edaria eta kafea barne

28€

ekainak 28 - uztailak 2

ARTZABAL
BASERRIA - JATETXEA
PUNTAPAZ 8, UZUMEL 943 36 93 39 artzabaljartetxea.eus

GOLDWELL
ELUMEN

ile apaindegi

mistoa

Kolorazioetan teknika berriak eta iraunkorrrak

Zubiaurrenea 4, ☎ 943 361 951

Iñaki Iturgintza

Ondo pasa festetan!!!

- BEROKUNTZA • GASA
- AIRE EGOKITUA
- ZORU BERO-EMAILEA
- ITURGINTZA
- ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

600 024 825

Info@inakiturgintza.com - www.inakiturgintza.com

mur
errotuluak

Ondo pasa Santixabeletan!!

Ibilgailuak - Erakustokiak - Lonak
Argidunak - Inpresio digitala

943 36 60 21 - USURBIL
puntapax kalea 6 A-B

info@murerrotuluak.com - www.murerrotuluak.com

ZENDOIAENEA
taberna

Zerbeza eta giro onal
Ondo pasa Santixabeletan!

GARAGARDO AUKERA!

Kale Nagusia 35, Usurbil

HAURREN BI JOLAS EGUN

Baten faltan bi. Haur eta gaztetxoek jolastoki eta plaza izango dugu Usurbil jaiotan, bitan; aurreko edizioekin alderatuta ezohiko egunetan gainera; ekainaren 29an larunbatarekin eta uztailaren lehenean, astelehenarekin.

Umeen Egun bakoitzak harrera ekitaldi bana izango du; larunbatekoak estreinakoz udaletxe aurreko plazan. Adin tartearen arabera eskaintza prestatu dute antolaketa lanetan murgilduak izan diren gurasoek. Erronka izango dute LH5-DBH2 artekoek, puzgarriak 0-5 urte artekoentzat frontoian eta ginkanako proba dibertigarriak LH1-4 artekoek. Hilaren 29an 10:00etan “haurren guztiak udaletxe aurrean elkartu ondoren, taldeetan banatu eta gune ezberdinetan jokoak egingo dituzte”, iragarri dute ginkanako anto-



Ekainaren 29an, goizeko 10:00etan batuko dira udaletxe aurrean.

latzaileek. 12:30ean amaitutzat emango dute ekimena “eta partaide guztiei barraketarako fitxak eta patatak emango dizkiegu”. Adi, ginkanan parte hartzeko aurrez bideratu beharko da izena. Adi izena eman dutenentzako oharrari. “Taldeak gelaka izango dira, beraz, gela bat,

talde bat”, ohartarazi du antolakuntzak.

Taldeak, koloreka

Prestaketa lanak errazteko gela bakoitzak “kolore jakin bateko zerbeit ematea (kamiseta, zapia, txapela...) eskertuko genuke”. Koloreekin agertzea eskatzen dute: 1A horia, 1B berdea, 2A zuria, 2B urdina, 2C arrosa, 3A beltza, 3B morea, 4A gorria, 4B laranja.

Uztailaren 1ean, jolas parkea

Astelehenean frontoian biltzeko gonbita luzatu dute berriz. Kasu honetan, jolas parkea izango da 0-12 urte arteko haur eta gaztetxo guztientzat, norberak eraman-dako jatekoarekin lagun artean bazkaltzeko aukera izango da gero, eta arratsalde parterako hiru hitzordu: Tor magoa, apar festa eta txokolate jana.

“DANTZIPUINAK”, JAIETARAKO SARBIDEA

Izenburuak dioen moduan dantza eta ipuinak tartekatuko dituen saioa antolatu dute ekainaren 27rako Muxurbilek eta Sebastopol dantza eskolak. Herritar batek, Ixabel Agirresarobek parte hartuko du ipuin kontalari gisa eta aipatu moduan, Sebastopoleko kide Jaione Albenizek dantzan.

“Europako eta ekialde hurbileko ipuin eta dantzak elkartuaz sortu dugu dantzipuinak. Bertan, ipuinak entzun eta dantza zuzenean eskaintzen da. Dantza, ipuina. Ipuina, dantza” uztarturik eta zuzenean, antolatzaileen esanetan. Albeniz dantzan eta Agirresarobe kontalari gisa ariko diren emaldia hilaren 27an 20:00etan Sutezin. Saiorako sarrera doakoa izango da. Jai giroan murgiltzen hasteko hitzordua.



Jaione Albeniz dantzan eta Ixabel Agirresarobe (argazkian) kontalari gisa ariko dira ekainaren 27an osteguna, iluntzeko 20:00etan Sutezin.

TXIRIBOGA

TABERNA



IRAZU KALEA 6, USURBIL

Rafa

iturgindegia


ONDO PASA
SANTIXABELAKI!



- Iturgin lan orokorrak
- Dutzako manparak
- Konfidantzazko gremioak
- Komuneko altzariak

Bordaberri kalea 1, 1 behea • ☎ 943 36 80 04

KALITATEZKO PRODUKTUEKIN ESTILISMOA ETA ESTETIKA LANTZEN DITUGU



INTZA

ILEA PAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA

- UDARA BEGIRA PRESTATU
ZURE GORPUTZA eta
AURPEGIKO AZALA
- PEDIKURA/MANIKURA
ESMALTE
IRAUNKORRAREKIN
PRESOTERAPIAKO BONOAK

KALITATEZKO PRODUKTUEKIN
ESTILISMOA ETA ESTETIKA
LANTZEN DITUGU

ONDO PASA
SANTIXABEL JAIAKI!

Eguerditan irekia! Nagusia 8, Usurbil 943 36 36 41

BERRIKUNTZEKIN DATOR JALETAKO XVII. PINTURA LEHIAKETA

Festetan urtero antolatzen da pintura lehiaketa. Aurtengoa XVII. edizioa izango da eta berritasun nabarmen bat izango du; lehen aldiz helduek ere parte hartu ahal izango dute txapelketan. Aldaketa honen eta Zirriborro tailerraren martxaren inguruan aritu da Susana Martin irakasle eta koordinatzailea NOAUA!rekin.

NOAUA! Santixabeletan urtero antolatzen du Zirriborro tailerrak pintura txapelketa. Aurten helduen txapelketa ere antolatu duzue. Nondik sortu da ideia hau?

Susana Martin. Pasa den urtean guraso bat, ama bat konkretuki, etorri zen pintura lehiaketan parte hartze-
ra bere umearekin eta galdetu zidan ea parte har zezakeen eta baiezkoa eman nion, nahiz eta aurreikusita ez zegoen helduen parte hartzea. Aurten gorako ideia polita iruditu zitzaidan eta galdetu nuen ea posible zen eta baiezkoa eman zidaten. Hasieran gurasoentzat izatea pentsatu genuen, baina gero zerbait irekiagoa behar genuela pentsatu genuen, denontzako zerbait. 17 urtetik aurrerakoentzat txapelketa propioa egongo da eta, umeei bezala materiala banatuko zaie. Etxetik ere eraman ahal izango da. Eskaintzen den materiala erabiltzen

*“17 urtetik
aurrerakoentzat
txapelketa
propioa
egongo da
aurten”*



Lehen aldiz helduek ere parte hartu ahal izango dute. Gaia berdina izango da denentzat.

uzten da eta ondoren hurrengo urterako gordetzen da. Gaia denentzat berdina izango da. Urtero saiatzen gara gai erraz bat aukeratzeko, txikienentzat zailagoa izaten delako ulertzea egin beharrekoa. Aurtengo gaia izango da “Santixabel jailetan zer da gehien gustatzen zaizuna?”. Gai honek balioko digu jakiteko adin talde bakoitzak zer baloratzen duen gehien

festetan.

Helduak animatuko direla uste duzu parte hartzera?

Pasa den urtean bat animatu bazen espero dut aurten gehiago izatea. Behintzat aukera zabaltzeko dugu. Ondo pasatzea da helburua, giro polita sortzen da eta arratsalde on bat pasatzeko modu bat da.

“DENENTZAT EGOTEN DA SARI TXIKI BAT”

NOAUA! Zeintzuk dira txapelketa irabazteko giltzak?

Susana Martin. Nik ez dut aukeratzeko marrazki irabazlea. Aukeratzeko ditugu hiru pertsona lan hori egiteko, orduan

bakoitzak bere irizpideen arabera erabakitzen du: sormena, teknika... orokorrean dena hartzen dute kontuan. Adin bakoitzeko irabazle bat hautatzen dute, baina denentzat egoten da sari txiki bat:

batido bat eta patata poltsa bat. Irabazleei materiala banatzen zaie, gazte eta umeen kasuan eta aurten, helduentzat afari bat oparitzea erabaki dugu bi pertsonentzat.

ERAKUSKETA IPINIKO DUTE SUTEGIN, “URTEAN ZEHAR EGINDAKO LANEKIN”

NOAUA! Azken urteetako lehiaketetan haur dezentek hartu du parte. Nolako balantzea egiten duzu?

Susana Martin. Nik pintura lehiaketa egitea pentsatu nuen Umeen Eguna egon badagoelako, baina beste egunetan ez zen umeentzat ezer egoten. Nire ustez Usurbilen artista pila bat daude eta zaletasuna ere bai, eta pentsatu nuen ideia polita zela umeei beste egun batean beren espazioa ematea, barrakez gain beraiek ere festetan parte hartzeko. Egia da azken urteetan ume pila batek hartzen dutela parte.

Zer ematea espero duzu aurtengo bi txapelketek?

Pentsatzen dut beste urteetan bezala izango dela, animatuko direla.

Zirriborro tailerrekoen lanak erakusgai jarriko dituzue jaietan.

Zer ikusi ahal izango da bertan?

Lan pila bat egiten dugu kurtsotan zehar eta festetan erakusketa egiten dugu Sutegin urtean zehar egindako lan horiekin: koadroak oleoekin, pastelak, akuarelak, eskulanak, marrazkiak... dene-tik. Helduek gehiago egiten dituzte erres-taurazio lanak eta gisa horretako lanak.

Susana Martin: “Lan zoragarriak egin ditugu Zirriborro tailerrean”

Zer eman du aurtengoan Zirriborro tailerrak?

Lan zoragarriak egin ditugu ikasturte

honetan. Sormen izugarria dute eta urtero bezala lan asko egin dute. Oso gustura nago.



“Pentsatu nuen ideia polita zela umeei beren espazioa ematea, barrakez gain, beraiek ere festetan parte hartzeko”. Horrela abiatu zen pintura lehiaketa.

“KURTSO BERRIA URRIAN HASIKO DA”

NOAUA! Datorren ikasturtean noiz hasiko da? Eta izen-ematea?

Susana Martin. Kurtsoa urrian hasiko da. Lokala nahiko txikia da eta arazoak izaten ditugu izena ematen duten guztiak hartzeko. Normalean lehentasuna ematen zaie jada apuntatuta dauden

umeei jarraitzeko aukera izan dezaten, eta baten batek plaza libre uzten badu berriak hartzen ditugu. Pasa den urtera arte klaseak Santuenean ematen nituen ostiraletan, baina eskaera asko zegoenen ostiraletan beste bi talde hartu ditut Usurbilen. Ordu gehiago

ezin ditut sartu eta lokalak ere espazio murriztua du. Lokal handiagoa izango bagenu, bi irakasleren artean egin genezake lana eta ikasle gehiago hartu, baina ezin da. Pena handia ematen dit, zaletasun handia dagoelako eta umeak gogoz daudelako, baina ezin da.

PINTURA LEHIAKETAKO OINARRIAK

Heldu nahiz haurren pintura txapelketetako gaia:

“Santixabel jaietan zer da gehien gustatzen zaizuna?”.

Haurren 17. Pintura Lehiaketa

■ 2-16 urte artekoak zuzendua.

■ Sariak: pintura materiala eta diploma.

■ Sari kopurua: 11. Adin tartearen arabera: sari bat 2-4 urte artean, 5-13 urte artean urte bakoitzeko sari bat, 14-16 urte artekoen artean sari bat.

Helduen 1. Pintura Lehiaketa

■ 17 urtetik gorakoentzat.

■ Saria: bi lagunentzako afaria.

Pintura txapelketako egitaraua:

■ 15:30 Lehiaketaren hasiera frontoian. Parte hartzaileentzako materiala bertan banatuko da. Antolakuntzaren gomendioa: orriaren azpialdean jartzeko euskarriren bat eraman (karpeta edo liburuaren bat...). Margotzeko materiala etxetik eraman daiteke.

■ Lehiakideen sortze lanak gero frontoian jarriko dira ikusgai. Sarietako epaimahaiko kideen balorazio lana.

■ Amaieran, sari banaketa.

Oharra: epaimahaia ikusten badu bi txapelketetan aurkeztutako lanek behar besteko kalitaterik ez dutela, saria eman gabe gera liteke.



Lehiakideen margolanak frontoian jarriko dira ikusgai.

Ondo pasa
Santixabeletan!

Atallu
AUTOAK

Motorra
Balaztak
Mekanika
Esekidurak
IAT-aurrekoa
Pneumatikoak
Ihes Kanalizazioak
Injekzio Elektronikoa
Berehalako Zerbitzua

Atallu industrialdea, Oria kalea 4 / Usurbil 20170 / 943 37 74 78 / atalluautoak@gmail.com

EuroTaller

G15 GIPUZKOA
HIGIEZINA
ELKARTEA

Ondo pasa
jaietan!

G15 USURBIL
HIGIEZINA | INMOBILIARIA

SALEROSKETA & ALOKAIURAK
Zugandik GERTU behar duzun GUZTIRAKO

688 739 733 info@g15usurbil.com
Etxebeste Kalea 15 - USURBIL



*Santixabel zoriontsuak opa
dizkizuegu!*

Kale Nagusia 10, USURBIL
Tel. 943 36 11 82



ARRANDEGIA
PELLO



EGIN ZURE ESKAERAK
WHATSAPP-ETIK!

ONDO PASA
SANTIXABELETAN!

ASTEARTETIK-LARUNBATERA

8:30-13:30

ORDUTEGI ETA
TELEFONO BERRIA

650 31 31 91 PUNTAPAX 7, USURBIL

Uraitz, s.l.

*Ondo pasa
Santixabeletan!!*



**Igeltseritza
Orokorra**

Telefona

693 05 93 92

943 56 66 40

uraitz@uraitz.com

Borda Berri 2, 3ºA USURBIL - Geltoki Kalea 15, URAITZ OFIZINA, LASARTE-ORIA

AZTARRIKA GAZTE ASANBLADA: “BADAUDE BESTI

Aurtengo gazte egitaraua ekitaldiz beteta datorkigu. Badira aurrez proposatu ez diren ekitaldiak, bai eta aldatu direnak ere. Aztarrika Gazte Asanbladaren ekimenak dira horiek, eta horiei buruz hitz egiteko NOAUA!rekin izan dira Maddi Egizabal, Malen Azpiazu eta Intza Ruiz asanbladako kideak.

NOAUA! Azken urteetan Orbeldi arduratu da trakaren ikuskizunaz. Aurtun Aztarrika Gazte Asanbladakoek hartu duzue erreleboa. Zuen izan da ekimena?

Intza Ruiz: Dantza taldearen partetik jaso genuen gonbidapena. Beraiek urte askoan arduratu dira trakaz eta herriarentzat errepikakorra izan daitekeelakoan, gu talde berri bat izanik ea lan hori egitea gustatuko litzazigukeen galdetu ziguten. Pixka bat aldatzea zen beraien asmoa, beti berdinek egin beharrean. Talde polita sortu dugu. Ekitaldi ireki modura planteatu dugu, asanbladako gainontzeko kideei, gazteei eta dantza taldekoren batzuk ere animatu dira.

Zerbait prestatzen hasi zarete jada?

I.R: Bai, zerbait prestatu dugu, gutxi, baina zerbait bai.

Maskotari lotutako ikuskizuna egingo duzue edo gazte asanbladaren ideiak isladatuko dituen zerbait?

I.R: Tradizioari lotutako zerbait sortu dugu, maskota ere hor sartzen da.

Malen Azpiazu: Maskotaren gaia hartu dugu, jakina. Hasiera horri lotuta izango da, baina dantzan bertan ez daukagu gaia presente.

“Kaleak hartu nahi ditugu”

Asanbladaren ildo feministako kideek batukada egingo duzue larunbat gauerdian. Hori prestatzeko tailerrak egin dituzue azken hilabeteotan. Zer eman dute?

Maddi Egizabal: Bildu gara 2 orduko sei

“Ekitaldi ireki modura planteatu dugu azken eguneko traka festa”



Intza Ruiz, Malen Azpiazu eta Maddi Egizabalek jaietarako antolatutako ekitaldien berri eman digute.

saiotan. Gure eskaera bati erantzuteko antolatu zituen saioak Udalak. Galdetu ziguten zer egin nahi genuen eta batukada feministaren ideia azaldu genien. Zorionez irakasle batzuk ekarri zizkiguten, materiala eta guzti zekartenak eta oso ongi pasatu dugu. Prozesu horrek asko batu gaitu, espazio ez formal batean bildu gaitu, aisialdian eta ongi pasatzeko. Gure artean saretzeko aukera eman digu eta hor sortu den energia da transmititu nahi duguna egun horretan. Kaleak hartu nahi ditugu, ondo pasatzen dugula erakutsi eta esandako energia transmititu herriari.

Zer eskainiko duzue larunbatean?

M.E: 20 bat izango gara. Klaseetarako itxaron-zerrenda egon zen. Kafe Tertuliako batzuk kanpoan geratu ziren, baita herriko emakume helduagoak ere. Gure asmoa da batukada jotzeaz gain “Show” pixka bat eman eta batukadan joko ez duten emakumeei ere protagonismoa ematea.

I.R: Gure asmoa da klaseak hartu ditugunotatik at zabaltzea. Kaleak hartu nahi ditugu eta horretarako ez dauka zentzurik batzuek bakarrik egitea lan hori.

MULTIKIROL FESTA

NOAUA! Egitarauaren beste berezitasun bat da multikirol festa.

Malen Azpiazu: Orain arte multikirolen lau jardunaldi egin ditugu. Giro polita sortzen dela ikusita eta txosnaguan ostiral goizean gabeziak zeudela kontuan hartuta, multikirolei lotutako zerbait egitea pentsatu genuen antolatzaileok.

Eskubaloia, futbola eta hockey-a. Nola bururatu zitzaizuen nahaste hori?

M. A: Usurbilgo betiko kiroleetatik ateratzea ere ongi egon zitekeela iruditu zitzaigun eta kirol berriak probatzeko gure azpiegiturak ikusita hockey aukera ona iruditu zitzaigun. Politia izan daitekeelakoan gehitu genuen kirol berri hori.

M.E: Denok berriak gara eta indar fisikoak ez du gehiegi baldintzatzen joko. Hori du interesgarrien. Talde mistoak sustatu nahi izan ditugu eta denok eroso sentiaraziko gaituen formatu bat eskaini nahi izan dugu.

E BIDE BATZUK BORROKAK IKUSGARRI EGITEKO"

NOAUA! Erraustegiaren aurkako manifestazioa ez duzue iragarri aurten. Zergatik?

Intza Ruiz: Hasteko formatua aldatu nahi genuen, borrokak aldarrikatzeko milaka metodo daude. Beti manifestazioa jotzea da errazena, ohikoena. Hori ikusita konturatu gara badaudela beste bide batzuk borrokak ikusgarri egiteko. Horregatik pentsatu genuen txupinazo aurretik manifestazioa egin beharrean beste ekimen mota bat egitea udal-txean. Betiko dinamika apurtzeko modu berri bat da. Jende askok borroka hitza entzutean manifestazioarekin lotzen du zuzenean eta guk hori apurtu nahi izan

dugu. Erraustegiaren gaia alde batera utzi dugu aurten, hiru urte gai berdina lantzen aritu gara eta errepikakorra izan daitekeelakoan aldatu dugu ideia. Milaka gai daude gazteoi zuzenean eragiten digutenak eta horiek ere aldarrikatu nahi ditugu. Jakina erraustegia ere presente daukagula, baina bestelako arazoei ere ikusgarritasuna eman nahi diegu.

Maddi Egizabal: Gure arazoetako bat erraustegia da, baina beste hainbat ere badaude eta momentua eta lekua da horiek aldarrikatu eta mahai gainean jartzeko. Ez dugu gai bat ukatu nahi, baina beste gai batzuk islatu behar ditugu.



"Erraustegiarena presente dugu baina bestelako arazoei ere ikusgarritasuna eman nahi diegu".



**antenas
Telemar**

1969. urtetik gipuzkoarrei zerbitzua ematen.
Telekomunikabideetan goi mailako teknikariak.



elkano kalea 13 HERNANI
Tlfnoa. 943 55 33 99
info@antenastelemar.com

6855 zenb. telekomunikabide erregistroan

Bixen
ileapaindegia

Depilazioa
Hilearen
erorketaren aurkako
tratamendua

Ondo pasa
SANTIXABELETAN!

Nagusia 10, Usurbil · 943 37 28 44



GAZTELEKUA ZABALIK UDAN ETA FESTETAN

1 0 urte betetzear ditu Gaztelekuak. Ez da oharkabeen pasako urtemuga. Uda partera begira antolatu dituen ekimenetan jada nabari da, prestaketa lan betean igaroko dutela gazteek ostiral honetan bertan abiatuko duten oporraldi luzea.

Abestia, bideo gidoia... lantzen has-
tera doaz. Lehenago orde, udan zehar,
ate joka ditugun Usurbilgo jaietan ere
zabalik izango da Gaztelekua. Ekainaren
29an ur eta zikin jolasak antolatu dituz-
te DBH1-ekoentzat, uztailaren lehenean
margolan tailerra erabiltzaile guztien-
tzat. Segidan duzue Gaztelekuko udako
ekintzen egitaraua. Gogoan izan, tartean
hainbat txango antolatu dituztela. Irtee-
ra hauetarako guraso baimena jaso, bete
eta jasotako leku berean, Gaztelekuan
aurkeztu beharko da. “Bertan zehaztuko
da ordutegia eta zer eraman behar du-
ten”.



Hamargarren urtemugari begira den Gaztelekuak ekimen eskaintza zabala iragarri du uda parterako. Argazkia: usurbil.eus

Informazio gehiago jasotzeko bideok
dituzue: Gaztelekuan.

gaztelekua@usurbil.eus
943 371 050.

EKINTZAK ETA IRTEERAK

■ Ekainak 20 osteguna:
ETB1eko Gure Kasa saiora, DBH3-koekin.

■ Ekainak 22 larunbata:
Udako solstizioaren ospakizuna
DBH1-ekoekin.

■ Ekainak 24 astelehena:
Txokoaldeko Txalaparta Txokora irtee-
ra DBH1-ekoekin.

■ Ekainak 27 osteguna:
“Beldur barik” sariko ekintza: Zu-
maia-Deba txangoa eta afaria.

■ Ekainak 29 larunbata:
Ur eta zikin jolasak Artzabalen

DBH1-ekoentzat.

■ Uztailak 1 astelehena:
Gaztelekua Zabalik, margolan tailerra
denentzat.

■ Uztailak 4 osteguna:
Donostiako irlara irteera DBH1-ekoe-
kin.

■ Uztailak 5 ostirala:
Zarauzko hondartzara irteera
DBH1-ekoekin.

■ Uztailak 8 astelehena:
Gaztelekua Zabalik, 10. urtemuga an-
tolatzen: abestia sortzen.

Denentzat.

■ Uztailak 11-12:
Andatzara irteera DBH2-koekin.

■ Uztailak 15 astelehena:
Gaztelekua Zabalik, 10. urtemuga an-
tolatzen: bideo gidoia.
Denentzat.

■ Uztailak 18 osteguna:
Gaztelekua Zabalik, pizza tailerra.
Denentzat.

■ Uztailak 19 ostirala:
Aia-Zarautz txangoa, altxorraren bila
DBH2-koentzat.



Patrienea
lateixea

- bazkariak EGUNERO
- afariak. ostegunetik larunbatera

☎ 943 362725 • ☎ 688 690 361

kale nagusia 14. 20170 Usurbil


Aguirrezabal Estankoa

Ondo pasa
Santixabeletan!

kale Nagusia, 27.

☎ 943 361 110

MIKEL ARRAINDEGIA



San Inazio, 1 • ☎ 943 366 356

Ondo pasa
Santixabeletan!

guria
taberna

Pintxoak, razioak, ogitartekoak,
plater konbinatuak, hanburgesak,
entsaladak....

eta ostegunetan, PINTXO-POTEA!

PUNTAPAX 12, Usurbil - 943 55 93 35

BERTSOPAPER LEHIAKETA, AZKEN TXANPAN

Bertsopak sortu zalea bazara, burura datorkizuna idatziz jaso eta jaietako 43. Bertsopaper Txapelketan parte har dezakezu. Ostiralean (ekainak 21) amaituko da, Bota Punttubak eta Usurbilgo Udalak antolaturiko lehiaketara lanak aurkezteko epea. Gogoratu parte hartzeko bete beharreko baldintzak:

- 16 urtetik gorako usurbildarra izatea.
- Lanak (originala eta hiru kopia) ekainaren 21a baino lehen aurkeztu, egilea nor den adierazi dezakeen daturik gabe. Lanarekin batera kartazal itxi batean parte hartzailearen datu pertsonalak aurkeztu. Guztia helbide honetan: Usurbilgo Udal (XLII. Bertsopaper Lehiaketa) Joxe Martin Sagardia plaza. Usurbil 20170
- Lanek 6-10 bertso artekoak izan beharko



Uztailaren 1eko bertso saioan banatuko dira sariak.

dute, inoiz argitaratu gabeak.

- Sariak: lehen saria 200 euro eta oroigarria; bigarrena, 150 euro.

■ Oharra: epaimahaiarentzat aurkeztutako lanek behar duten kalitaterik ez badute, sariak eman gabe gera daitezke.

BERTSOZALEENTZAKO OHIKO HITZORDUA

Aurten ere ez du hutsik egingo Bota Punttubak eta Udalak elkarrekin antolatzen duten bertso saioak. Urtero legez, punta-puntako bertsolariak arituko dira. Uztailaren 1ean, astelehenez, artista hauek igoko dira frontoiko ohol-tza gainera: Aitor Mendiluze, Julio Soto, Miren Artetxe eta Oihana Bartra. Kantaldiaren amaieran, Santixabel Bertsopaper lehiaketako sariak banatuko dira.

Uztailak 1 astelehena

- 22:30 Bertsolariak frontoian: Aitor Mendiluze, Julio Soto, Miren Artetxe, Oihana Bartra.
- Jarraian, 43. Santixabeletako Bertsopaper lehiaketako sariak. Antolatzaileak: Bota Punttuba, Udalak.



Miren Artetxe, Aitor Mendiluze, Julio Soto eta Oihana Bartra arituko dira kantuan.

URDAINTZI

eraikuntzak



649 43 54 75 / 76
943 36 72 64

ERAIKUNTZAK
OBRAK
BERRITZE LANAK

IT-ak egiten
dira

*Ondo pasa
Santixabeletan!*

urdaintzi@euskalnet.net



ANTXETA
jatetxea



- Pintxoak • Eguneko menuak • Karfa
- Plater konbinatuak • Ogitartekoak
- Eta igandetan, menu berezia!*

Santixabel jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 37 03 44

txirriStra
TABERNA



- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Pintxoak

Ondo pasa Santixabeletan!

Kontseju zaharra, Telf: 943 36 04 66

FESTAK KALEAN BIZITZEKO OTORDUAK

Festa betean garela indarberritu beharra dugunez, ez ahaztu, Santixabelak jan edanaren zerbitzari izango ditugu. Kalean festa giro ederrean, mahai baten bueltan biltzeko hitzordu bat baino gehiago izango da, adin tarte guztietako herritarrentzat:

■ Ekainak 28, 14:00 Gazte bazkaria txosnetan. Txartelak aurrez salgai ohiko tokietan.

■ Ekainak 29, 14:00 Euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko zikiro-jana Askatasuna plazan. Txartelak agortu ez badira, Aitzagan, Txiribogan eta Borda-txon salgai 25 eurotan, 15 eurotan ikasle eta langabetuek. Oharra: txartelak ezingo dira itzuli ekainaren 28tik aurrera.

■ Ekainak 30, 14:00 Jubilatuen bazkaria Atxega Jauregian. Txartelak agortu ez ba-



Jubilatuen bazkaria Atxega jauregian egingo da, ekainaren 30ean.

dira, ekainaren 21era arte salgai Gizarte Zerbitzuetan eta hiru jubilatutako elkarteetan; Usurbilgo Gure Pakean, Aginagako Arraten eta Santueneko Gure Elkarteetan.

■ Uztailak 1, 13:30 Haurren lagun arteko

bazkaria frontoian, norberak eramanda.

■ Uztailak 1, 14:00 Oilasko-biltzaileen bazkaria txosnetan parte hartzaileentzat.

■ Uztailak 2, 19:00 Paella jana txosnetan, paella bertan sukaldatzen dutenekin.

Josue
Igeltseritza

☎ 606 37 21 05

Ondo pasa
Santixabeletan!!!

Fatxaden estaldurak
Estalkien berriztatzeak
Barruko berrikuntzak
Gremioen koordinaketa

Igeltseritza orokorra

Ondo pasa festetan!

G Auto Guria s.l



Auto Konponketa
Pre I.T.V.
Marka guztiak

KONFIDANTZAZKO TAILERRA!

☎ 943 363 298 Zelai-haundi 11, Osinalde Pol. USURBIL

Elexpe

de apaindegia



Ondo pasa Santixabeletan

Betileen tintaketa eta permanentea
 Zutikako eta etzandako Solariuma

Muna Lurra 12 • ☎ 943 370 462

Ondo pasa Santixabeletan!!



ALKARTASUNA
 Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba

ERRAUSKETARIK EZ LURRA BASERRIA HERRA BIZIRIK

Rtallu industrialdea 26 ☎ 943 361 114 alkartasuna@usurbil.eus www.alkartasunausurbil.eus

SANTIXABEL JAIK 2019

Ekainak 27, osteguna

- 17:30 Pala Txapelketa. Kirol egokituen erakustaldia, emakumezkoen finala eta gizonezkoen finala.
- 18:00 Haurrentzako BTT bizikleta irteera Mikel Laboa plazatik.

Ekainak 28, ostirala

- 11:00 Multikirol festa.
- 14:00 Gazte Eguna: gazte bazkaria txosnetan.
- Bazkalostean, Andoni bakarlarria.
- 15:30 Haur, gazte eta helduentzako Pintura Lehiaketa (materiala bertan banatuko da). Ondoren, pintura lehiaketako sari-banaketa.
- 18:00 Elektrotxufila Elektrotxarangarekin kalejira udaletxera.
- 19:00 Txupinazoa eta ikurriñaren igoera udaletxetik: Estitxu Berasategi eta Esther Arrojeria eskubaloiz jokalarien eskutik.
- 19:00 Gazte ekimena eta txupinazoa txosnetan eta Elektrotxufila elektrotxaranga segidan. Ondoren, Arraiketari txarangarekin kalejira. Ondoren, buruhandiak txistulariekin.
- Jarraian, herriko dantzarien emanaldia frontoian.
- 23:00 Berbena: Larrian Gozo frontoian.
- 00:30 Kontzertuak txosnetan: NAO, Willis Drummond eta DJ Seymar.

Ekainak 29, larunbata

- 10:00 Ume-gazteei harrera udaletxe-ko plazan. Zatoz koadrodun zapi urdina jantzita duzula, haurren eguneko abestia dantzatzera!
- Umeen eguneko erronkak eta jolasak.
 - 10:30-12:30 Ginkana (LH1-LH4koentzat).
 - 10:30-12:30 Gaztetxoentzako erronka (LH5-DBH2koentzat).
 - 10:30-12:30 Puzgarriak frontoian 0-5 urte artekoentzat.
- 11:00-12:00 Helduentzako Santixabel Bola Txapelketa irekia Askatasuna plazako bolatokia.
- 12:00 Euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko kantujira Kuxkuxtu txarangak lagunduta.
- 14:00 Euskal preso eta iheslarien eskubideen aldeko ziklo-jana Askatasuna plazan.

- 16:30 Gaztelekuaren eskutik, ur eta zikin jolasak DBH1-ekoentzat Artzabalen.
- 18:00 Buruhandiak trikitilariekin.
- 18:00 "Goazen Benidorrera" antzezlanak Artzabalen.
- 18:30 Sokamuturra, ikastola aurreko belardian. Eguraldi txarra bada, Ikastolako patio borobilean.
- 18:30 Ray Fernandez kubatarren kontzertua txosnetan.
- 19:00 Zero Sette Jaiband Artzabalen.
- 20:00 Euskal presoaren eskubideen aldeko ekitaldia Olanoeneko plazan, Potxoenea ondoan.
- 23:00 Kontzertuak frontoian: Zapparra eta E.T.S.
- 00:00 Batukada feminista txosnetan.
- 02:30 Txosnetan: Skasti eta DJ Jotatxo.

Ekainak 30, igandea

- 06:00 Enzefalogramo Elektrotxaranga. Ondoren, gaupaseroen argazkia.
- 09:00 Esnadeia dultzaineroekin.
- 11:30 Urpekaritza Kiroldegian.
- 11:30 Azpeitiko zantzarriak.
- 12:30 Herri-kirolak: Gipuzkoako 2. mailako Aizkora Txapelketa 2019.
- 14:00 Jubilatuen bazkaria Atxegan.
- 18:00 Buruhandiak dultzaineroekin.
- 18:00 Patata tortilla lehiaketa txosnetan.
- 18:30 Arraiketari Txaranga.
- 18:30 Herri-kirolak:
 - Gipuzkoako lasto altxaratze txapelketa.
 - Gipuzkoako ingude txapelketa.
 - Idi dema.
- 23:00 Natali taldea frontoian.
- 00:30 Ezetaerre eta Dj Bull txosnetan.

Uztailak 1, astelehena

- 06:00 Oilasko biltzaileen gosaria eta irteera, txosnetatik abiatuta.
- 10:00 Ume-gazteei harrera frontoian. Zatoz, koadrodun zapi urdina jantzita duzula, haurren eguneko abestia dantzatzera!
- Egunean zehar, Txu Txu trenak.
- 10:00-13:00 Jolas Parkea frontoian (6-12 urte bitartekoentzat).
- 10:00-13:00 Jolas parkea frontoian

(6 urte artekoentzat).

- 11:00-13:00 Helduentzako Toka Txapelketa eta Santixabel Igel Jokoa Artzabalen.
- 12:30 Buruhandiak trikitilariekin.
- 13:30 Umeen lagunarteko bazkaria frontoian, norberak etarrita.
- 14:00 Oilasko-biltzaileen itzulera eta bazkaria.
- Ondoren, oilasko-biltzaileen jolasak.
- 14:30 Tor Magoa frontoian.
- 16:00 Apar festa ikastolako patio borobilean.
- 17:30 Txokolata frontoian.
- 18:00 Buruhandiak trikitilariekin.
- 18:30 Arraiketari Txaranga.
- 19:00 Puro Relajo rantxerak Artzabalen.
- 22:30 Bertsolariak frontoian: Aitor Mendiluze, Julio Soto, Miren Artetxe, Oihana Bartra.
- Jarraian, 43. Santixabeletako Bertsopaper lehiaketako sariak.
- 00:30 Bertsio gaua txosnetan.

Uztailak 2, asteartea

- 09:00 Esnadeia txistulariekin.
- 11:00 Xakea.
- 12:00 Soka-dantza udaletxe aurrean.
- Jarraian, lore eta salda banaketa.
- 12:30 Trikitilarien kalejira.
- 12:30 Buruhandi eta erraldoiak txistulariekin.
- 12:30 Incansables txaranga.
- 16:00 Mus txapelketa txosnetan, izen ematea 15:30-16:00 artean.
- 16:30-17:30 Haur eta gazteentzako Santixabel Bola Txapelketa, Askatasuna plazako bolatokia.
- 17:30 Gizonezkoen Esku Pilota Txapelketako finalak.
- 18:00 Buruhandi eta erraldoiak txistulariekin.
- 18:00 Gaztetxoentzako "a un toke" txapelketa txosnetan.
- 18:30 Erromeria Artzabalen, Estangarekin.
- 18:30 Incansables txaranga.
- 19:00 Paella jana txosnetan.
- 23:00 Maskota erretzea eta traka Dema plazan.
- 00:00 Desegin taldea txosnetan.
- Ondoren, karaokea!



943 530 337
607 119 313



Ondo pasa festetan!

- gremioen koordinaketa • berritze lanak
- sukaldeak • komunak • mota guztietako obrak
- aurrekontua konpromisorik gabe

errekatziki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

AIZPURUA OKINDEGIA



**OGIAK
GOZOGINTZA
TARTAK
ARDOAK**

Festetan zure mahaia ondo hornitu
nahi baduzu, gurean baduzu aukera!

KALE NAGUSIA, 25 • 943 36 12 20

edaritegia

BORDATXO

Pintxo bereziak
Bokatak
Plater konbinatuak

ondo pasa
Santixabeletan!!

Zubiaurrenea, 5. ☎ 943 37 10 42



%100 bertako sagarra

Ondo pasa
SANTIXABELETAN!



Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!

Santuenea,
Telf: 943 36 50 31

SAGARDOTEGIA

PREZIO BEREZIAK FERIAGUNEAN

Haiek datozenean jaiak ate joka ditugula sumatzen hasten gara. Eta joan arte berriz, ezin esan Santixabelak guztiz amaitu direnik. Anbulatorio ondoko aparkalekua feriagunea izango dugu ohi denez Usurbilgo jaietan. Prezio bereziak iragarri dituzte bi egunetarako; uztailaren 1eko Umeen Egunerako eta jaiak amaitu eta biharamunerako.

Uztailaren 3an ere, martxan

Bai, Santixabelak hilaren 2an amaitu arren, egunbete gehiago zabalik izango da feriagunea. Prezio bereziak iragarri dituzte barraketan, uztailaren 3an ere.



Uztailaren 1ean eta uztailaren 3an prezio bereziak ipiniko dituzte barraketan.

*Ondo pasa
Santixabeletan!*



Iturraldebotika

Tomas Iturralde botika

33/17 PEZ.

Dosifikazio Sistema Pertsonalizatua

Produktu homeopatikoak

Dermofarmazia

Maisu formulak



ETXEKO BEREZITASUNAK: TXULETA PARRILAN, ARKUMEA, TXERRIKUMEA

Santixabeletan OLARRONDO JATETXEAN...



EGUNEKO MENUA

14€ (BEZ barne)

✓ Arrainak eta haragiak
PARRILLAN!

ASTEBURUKO MENUA

30€ (BEZ barne)

DEGUSTAZIO MENUA

50€ (BEZ barne)



**Zonalde
paregabeak!**

RUFINO aurtengo
sagardoarekin
dastatzeko
aukera, **TXOTXI!**

*Ono pasa
jaietan!*



Olarrondo Jatetxea
5 zenbakia. USURBIL
erreserbak: ☎ 626 686 036
www.olarrondo.com

SANTIXABELAK

2019

Usurbil



Zatoz koadrodun
zapi urdina
lepoan jantzita
duzule!



Jai parekideen alde, eraso sexistarik ez!

Ondo pasa festak,
eta besarkadarik sentikorrrena
gure artean ez daudenentzat!



Usurbilgo Udala